

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**104/2019 Foru Agindua, apirilaren 24koa, adierazten duena Okinako herriko (Bernedoko udalerria) 2 poligonoko 90001 lurzatiko 016-232-5 landa bidean telefonia mugikorreko estaziogune bat jartzeko proiektua interes publikokoa dela**

Telefónica Móviles España SAK Bernedoko Udalarri obra baimena eskatu dio telefonia mugikorreko estaziogune bat jartzeko, eta hura egiteko 20 metro luzeko sareta dorre bat jartzeko, 3,00x4,50 metroko esparru hesitu baten barrualdean, Okinako herriko 2 poligonoko 90001 lurzatiko 016-232-5 landa bidean.

Bernedoko Udalak espedientea bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientean dago aurkezturiko proiektu teknikoa, telefonia mugikorreko estaziogune bat jartzeari buruzkoa (0100520 Okina COC: 201806003653), baita udal arkitektoak eginiko txostena ere, zeinean adierazten baita udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera lurzuria lurzoru urbanizaezinean dagoela, 7 zonan (erabilera mugatuko nekazaritza eremua), eta landa bideei eragiten diela.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientea ebazteko, diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 133/2015 Foru Dekretuaren arabera eta sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Otsailaren 28ko 57/2019 Foru Aginduaren bidez, xedatzen da espedienteari hasierako onarpena ematea eta espedientea 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea ALHAOn aragitaratu hurrengo egunetik aurrera. Izan ere, espediente hori 2019ko martxoaren 13ko ALHAOn (31 zenbakia) argitaratu zen, eta zen inolako alegaziorik aurkeztu horretarako eman zen epean.

Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Lege Orokorrak 2. artikuluan ezarritakoaren ondorioz datorkio interes publikoa aztertutako kasuari. Artikulu horretan ezartzen denez, "Telekomunikazioak interes orokorreko zerbitzuak dira eta lehia askearen araubidean ematen dira". Bestalde, 34.2 artikuluan hau xedatzen da: "komunikazio elektronikorako sare publikoak oinarrizko ekipamenduak dira (...). Haiek jartzea eta hedatzea interes orokorreko obrak dira."

Azpiegiturak berak dituen ezaugarriengatik jarri behar da landa lurretan.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lenenengoa. Telefónica Móviles España SAK sustatutako eta Bernedoko Udalak izapidetutako proiektuaren interes publikoa deklaratzeko. Proiektua honetan datza: telefonia mugikorreko estaziogune bat jartzea Okina herriko 2 poligonoko 90001 lurzatiko 016-232-5 landa bidean, lurzoru urbanizaezinean, 7 zonan (erabilera mugatuko nekazaritza eremua), udalerrian indarrean dauden arau subsidiarioen arabera, eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Bigarrena. Deklarazio honek ez du kentzen proiektua gauzatzeko udalaren baimen egokia lortzeko beharra, eta ez du aurretik juzgatzen udalak eman behar duen ebazpenaren edukia.

Hirugarrena. Interes publikokoa dela adierazteak ez du administrazio bidea amaitzen, ez eta horrek aurrera egin dezan eragozten ere. Beraz, ez dago haren aurkako errekurtsorik aurkezterik. Udalak, dagokion administrazio egintza emateko eskumena duen organoa den aldetik, baimena emateko edo ukatzeko hartzen duen ebazpenaren aurka bakarrik jarri ahal izango da errekurtsosoa.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 24a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua*  
*JOSEAN GALERA CARRILLO*